

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko urriaren 21ean aurkeztuko du

Albert Oehlen: Irudiaren atzean

Albert Oehlen: Irudiaren atzean

- Noiz: 2016ko urriaren 21etik 2017ko otsailaren 5era
- Komisarioa: Petra Joos

- Egilearentzako askatasun artistikoa da bere gai nagusia. Hori ikus daiteke mihisearekin lanean hastean erakusten duen ausardian; izan ere, iraganaren hiztegia gordetzen duten eta berria baina ezaguna den zerbaiten sentsazio bitxi eta paradoxikoa sortzen duten teknika berriak erabiltzen ditu.
- Bere lanarekin Oehlenek pinturaren heriotzari buruz XX. mendearen bigarren erdian piztu eta errepikatzen den eztabaida sustatzen du, eta hori, hain zuzen ere, pintatuz egiten du, eta pintura adierazpen-baliabide gisa erabiliz.
- Erakusketak zenbateraino ikusteko gai garen arakatzten du. Hasieran serieak formalki diferenteak badira ere, bateratzen eta erlazionatzen dituen nukleo komun bat dute, serie baten eta bestearen arteko loturen trukea eraginez.

Guggenheim Bilbao Museoak *Albert Oehlen: Irudiaren atzean* erakusketa hartuko du. Erakusketa hau azken hamarkadetan gehien eragin duen margolarietako baten eta gerraosteko Alemaniako artista polemikoenetako baten adierazpen artistiko argia da.

Albert Oehlenek (Krefeld, Alemania, 1954) gaur egungo pintura jorratzen du, eta horretarako askotariko tekniketarik edaten du, sorburua ondorengoetan dutena: publizitatearen industria, espresionismoaren pintzelkada, surrealismoaren keinua eta ordenagailuz sortutako irudiak. Bere lanarekin Oehlenek pinturaren heriotzari buruz XX. mendearen bigarren erdian piztu zen eta errepikatzen den eztabaida sustatzen du, hain zuzen ere, pintatuz, eta pintura adierazpen-baliabide gisa erabiliz.

Azken urteotan, bere pinturetan, berak gai nagusitzat jotzen duena garatu du: askatasun artistikoa. Askatasun hori argi ikus daiteke mihise-lanari iraganeko kutsua gordetzen duten teknika berriak erabiliz ekitean erakutsitako ausardian. Teknika horiei esker “berria baina ezaguna” den zerbaiten sentsazio bitxi eta paradoxikoa eragiten du. Albert Oehleni ez dio axola ez bere lanen esanahiak, ez ikusleek egiten duten interpretazioak, ezta publikoaren konplizitateak ere; mihise zuri baten aurrean jartzen den bakoitzean zerbait desberdina esperimentatzen eta sortzen saiatzen da besterik gabe.

Erakusketa honek ez du ohiko moduko atzera begirako bat izan nahi, adierazpen artistiko bat baizik, eta bi autorretratuz eta hiru seriez osatua dago. Lehenengo seriea, abstraktua, 1980ko hamarkadakoa da; bigarrena, 1990eko hamarkadan ordenagailuz egindako lanek osatzen dute; eta oraindik amaitu gabe dagoen hirugarren serieak zuhaitzen gaia jorratzen du. Erakusketak “irudiaz

haratago ikusteko gai zenbateraino garen” arakatzen du; izan ere, hasiera batean lanak formalki diferenteak badira ere, hiru serie horiek elkarren artean erlazionatzen dituen nukleo komun bat dute, eta serie baten eta bestearen arteko loturak trukatzea eragiten dute.

Autorretratuak

Bere ibilbidean zehar, Albert Oehlenek hainbat autorretratu egin ditu. Lan horietan, artearen esanahiari eta artistaren nortasunari buruzko gogoeta planteatzeko abiapuntu gisa beraren irudia erabili du.

Autorretratutan irudikatutako pertsona ez da garrantzitsua; bertan, artistak bere pentsamenduak gai zehatz baten bidez baino ez ditu adierazten. Oehlenek bere autorretratuak ere erabiltzen ditu margolaria jainko moduko zerbait hartzen dutenak kritikatzeko; bere burua bere lanarekiko kontrolik ez duen artista gisa irudikatzen du. Gehienetan, haren erretratuak kolore-sorta murriz bat erabiliz egindako irudi espresionistak dira, marroiak, gorri-horiak eta grisak. Zuzeneko eta keinuen bidezko estilo batez pintatzen ditu, espresionismo modu kontrolatu eta gogoetatsu batez eta berariak birtuosismotik urruntzen den teknika batez.

Norbera udaberri (Selbst als Frühling), 2006, lanean Oehlenek pintura-gai tradizional bat berriro interpretatzen du, udaberriaren eta bizitzaren ospakizuna alegia; itxura batean eszena idiliko bat da. Pintorea bera irudikatzen duen eta, aldi berean, Bako jainkoa ordezkatzeko duen pertsonaia maskulino batek begiratzen gaitu. Ez da une zoriontsu bat ospatzen ari den jainko bat bezala agertzen, baizik eta aurpegi serioarekin. Hala ere, Oehlen jainkoaren lekuan ipintzen da, kreatzaile gisa aurkeztuz bere burua, pinturaren kreatzailea baina bere esanahi tradizionalaren suntsitzailea. Gaur egungo bizitzaren elementuak txertatu ditu: ardoaren ordezkari garagardo botilatxoa ipini du, eta mahatsondo-hostoz egindako koroa baten ordezkari gabeko elastiko zuri bat darama.

Norbera zeramika lanean 3 (Selbst beim Töpfern 3), 2012, lanean Oehlenek nia artista moduan aztertzen du, 1980ko hamarkadaren hasieratik egin ohi zuen bezala. Modu klasikoan osatutako autorretratu honetan, margolariak egiten dituen guztietan bezala, bere irudia erabiltzen du, ez elementu psikologiko gisa, baizik eta bere ideiak eta pentsamenduak aldarrikatzeko eta, batez ere, kultura eta estetikako konbentzionalismoak zalantzan jartzeko.

Ordenagailu bidezko pinturak (Computer paintings)

“Ez zait anabasa interesatzen, kontrolik gabeko ordena baizik”. Albert Oehlen

1992an Oehlen ordenagailu bidez diseinatutako koadroak margotzen hasi zen. Irudi pixelatuak dira, bereizmen txikikoak, eta teknologiaren bilakaera azkarraren ondorioz berehala zaharkitua geratzen den etorkizunari buruz hitz egiten dute.

Makinaren aukera teknikoek baina mugatuek arauen eta patroien multzo berri baten moduan jarduten dute, eta bertan, artistak inprobisatzeko aukera du. Marrazketako programa digital arruntak erabiliz sortutako abstrakzio mota berri bat dira irudiok. Bertan, emaitza, sagua norberaren keinu adierazgarriekin mugituz lortzen da.

Oehlenek ordenagailuz egindako puntuen, gezien eta beste sinbolo batzuen patroiak erabiliz osatzen zituen marrazkiak, eta mihise gaineen serigrafiatzen zituen, handituak eta pixelatuak, marrazkiaren gordintasuna azpimarratzeko. Horrela, egileak berak bere programaren oinarrietan adierazten dituen “ideia txarrei” erantzuteko erabakiak hartzeko aukera ematen dion egitura arbitrarioa finkatzen du.

Koadro horiek jada ez dira pintura hutsa, tekniken nahasketa baizik. Teknika horien artean daude ordenagailu bidezko inprimatzea, serigrafia eta pintzela. Oehlen metodo honen aitzindarietako bat izan zen, eta kultura digitalaren pintoreei bideak zabaldu zizkien.

Pintura abstraktuak (Abstract Paintings)

Oehlenen pintura abstraktuak figurazioaren eta abstrakzioaren artean kokatzen dira; horietan kolorea oldarka eta asalduraz ematen du eta pintzela modu berezian eta ausarti erabiltzen du. Oehlen 1988an hasi zen koadro abstraktuak margotzen, Martin Kippenberger-ekin batera, Andaluzian. Figuraziotik abstrakziora igaro zen, bere bizitzan artearen historian —figuratibotik abstraktura mugituz— gertatu zen bilakaera bera bizi behar duela uste duelako.

Pintzelaz eta olio-pintura baliatuz pintatutako mihiseak dira —pintatzeko modu tradizionalena—. Bertan, hala ere, bere trebezia teknikoarekiko nolabaiteko arduragabetasuna eta ezkutaketa ikus daiteke. Ederki kalkulaturako naturaltasuna erakusten du, bere mihiseak finkatutako arau edo edertasuneko patroia konbentzional batetik urruntzen saiatuz.

1988ko *Titulurik gabea* lanean, begi handiak, betaurreko horiak, sudurra eta mingaina dituen buru batek zurrustaka erortzen den pintura-geruzaz eta pintzelkada zabalez betetako koadro baten erdialdea okupatzen du. Koloreak nahastu egiten dira eta batzuek besteak zikintzen dituzte. Oehlenen koadroak ez dira ez politak ezta erakargarriak ere, haien bitartez gustuaren inguruko gogoeta egin nahi baitu.

Bere sarkasmoa agerikoa da bere lanari buruzko gogoetak azaltzen dituenean. “Koadro batean hilabetez lan egiten duzunean, munduko irudi itsusienaren aurrean pasatzen duzu hogeita hamar egun. Nire lanean, irudi izugarri inguratuta nago etengabe. Benetan. Zarpail ezin zatarragoak ikusten ditut, magia artez bezala azken unean zer bait ederra bihurtzen diren arren”.

Zuhaitzak (Bäume), 2013–16

Oehlenek 1989an margotu zituen bere lehen zuhaitzak, ordenagailu bidezko pinturak egin baino pixka bat lehenago, margolari abstraktu bihurtzea erabaki zuenean. Piet Mondrian-ek zuhaitzetik abiatuta forma figuratiboaren desagitea ikertu zuen moduan, Oehlenek baliabide hau erabiltzen du bere obrak metodikoki edukiz husteko.

Zuhaitzen adarren egitura kaotikoak eta eragabeak pintzelkadek nora eramango duten jakin gabe lan bat sortzen hasteko bidea ematen diote. Erditik abiatuta, adar bakoitza aurreko elementuarekiko erreakzio bat da; hortaz, aurretik ez dago ezer finkatua, erabiliko dituen koloreak izan ezik.

Serie honetako irudiek zuhaitz itxurako forma eskematiko beltzak erakusten dituzte. Bere enborrek eta adarrek ordenagailuz egindako marrazkien antzeko silueten itxura hartzen dute, pintzela eta olio-pintura erabiliz eskuz kontu handiz pintatu dituen arren. Koadro kolorebakar hauetan magenta koloreko laukizuzenak tartekatzen ditu, atzealdeko zuriarekin eta formen kolore beltzarekin kontraste handia erakutsiz.

Publizitateko panelen itxura ematen dieten polietilenoz estalitako aluminiozko xafla baten gainean margotutako lanak dira. Pintoreak berak dioen moduan: “Gustuko dut zurruntasun hori; ematen du teknologia modernoa dela, eta askoz errazagoa da material horren gainean pintatzea mihisean baino. Ez nuen beste gainazal baten bilatzen, besterik gabe probatu eta gustuko izan nuen”. Ezusteko aldaketa horiek tipikoak dira Oehlenen baitan, eta bere senari jarraitzen diote, baina kalkularen fruitu ere badira.

Erakusketan artistaren azken lanetariko bat dago: *Titulurik gabea*, 2016. Aurtengo udan egin du, lspasterren zegoela, eta serie baten parte da. Horretan collagea berreskuratu du: irudiak, lemak eta publizitate-zatiak txertatu ditu. Horrez gain, objektu horiek “zikindu” ditu, gainean pintura eman baitie atzamarrak erabiliz. “Pintura abstraktu bat egin nahi nuen, nonahi agertzen ziren publizitatearen osagaiek traba egiten ziotena [...] Baina, batez ere, pinturatzat jo daitezen nahi nuen, ez collagetzat.”

Jarduera didaktikoak

Albert Oehlen-ekin solasean

Albert Oehlen eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna Petra Joos solasean izango dira artistaren obrak.

Urriak 19, asteazkena, 18:30

Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalek gidatutako bisitaldi hauen bidez ezagutu erakusketen obra esanguratsuenak, muntaia-aren zokoak eta bestelako bitxikeriak. Fundación Vizcaína Aguirre-ren babesa dute.

- Arte-arduradunen ikuspegia: Petra Joos, erakusketaren komisarioa, gidari. Azaroak 30, asteazkena, 18:30
- Funtsezko kontzeptuak: Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza Koordinatzailea, gidari. Abenduak 14, asteazkena, 18:30

Irudiaren azala:

Albert Oehlen

Titulurik gabea, 2016

250 x 250 cm

Olio-pintura, berniza eta papera mihise gainean

Artistaren eskaintza

© Albert Oehlen

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel.: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es duzu eskueran (prentsa-eremua).


Prentsa irudiak:
Albert Oehlen: Irudiaren atzean
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.es


Norbera udaberri (Selbst als Frühling), 2006
Argazki-murala, olio-pintura eta akrilikoak ohol gainean
265 x 385 cm (2 zati)
Bilduma pribatua
Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris
© Albert Oehlen



Norbera zeramika lanean (Selbst beim Töpfern), 2012
Olio-pintura mihise gainean
180 x 170 cm
Artistaren eskaintza
Argazkia: Robert McKeever
© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 1994
Serigrafia eta akrilikoak mihise gainean
280 x 520 cm
Bilduma pribatua
Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris
© Albert Oehlen



Artista txarra (Bad Artist), 1997
Olio-pintura mihise gainean
190 x 246 cm
Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris
Argazkia: Lothar Schnepf
© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 2004/1992

Serigrafia eta akrilikoak mihise gainean

246 x 190 cm

Bilduma pribatua

Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 2005


Olio-pintura eta akrilikoak mihise gainean

280 x 340 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 2005/1992

Serigrafia, berniza eta olio-pintura mihise gainean

210 x 290 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Zuhaitza 28) [Ohne Titel (Baum 28)], 2015

Olio-pintura Dibond gainean

Maja Hoffmann Bilduma

375 x 250 cm

Argazkia: Stefan Rohner

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Zuhaitza 1) [Ohne Titel (Baum 1)], 2013

Olio-pintura Dibond gainean

378 x 250 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

Argazkia: def image

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Geziak) [Ohne Titel (Pfeile)], 1988


Olio-pintura mihise gainean

276 x 375 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 1990

Olio-pintura mihise gainean

200 x 200 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler,
Berlin/Paris

Argazkia: Gallery Max Hetzler Archive

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Xake taula) [*Ohne Titel (Schachbrett)*], 1988

Olio-pintura mihise gainean

195 x 195 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler,
Berlin/Paris

Argazkia: Arne Landwehr, Kunstmuseum Wiesbaden

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Tentel burua) [*Ohne Titel (Blödkopf)*], 1988

Olio-pintura mihise gainean

195 x 195 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler,
Berlin/Paris

Argazkia: Archive Galerie Max Hetzler, Berlin/Paris

© Albert Oehlen



Titulurik gabea (Zezen burua) [*Ohne Titel (Stierkopf)*], 1988

Olio-pintura mihise gainean

195 x 195 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Galerie Max Hetzler,
Berlin/Paris

Argazkia: Arne Landwehr, Kunstmuseum Wiesbaden

© Albert Oehlen



Titulurik gabea, 2016

250 x 250 cm

Olio-pintura, berniza eta papera mihise gainean

Artistaren eskaintza

© Albert Oehlen

